

Baleube



Enkarterrietako museoa (1993)

www.baleube.com

KONTU-KONTARI CUENTOS

Marian Santamaría Baranda

Benjamín Barandalla Azkueta

Marian Santamaría eta Benjamín Barandalla, Baleube-ren partaideok, literatura eta ipuinei buruzko zenbait jarduera burutzen dugu elkartearen “Kontu-kontari Cuentos” deituriko sailean. Azkeneko hogei urteetan lan asko egin dugu arlo horretan, eta daukagun esperientzia oso zabala da.

Libururik ez zegoen garaian jakinduria ahoz transmititzen zen herri eta kultura guztietan. Ipuinak, legendak, mitoak, eguneroko kontakizunak eta istorioak erabiltzen ziren jakinduria hori transmititzeko. Horiek guztiak, oso aberatsak eta gizakia orekan bizitzeko beharrezkoak. Gaur egun, berriz, irudia eta indibidualismoa nagusi diren gizarte honetan, ipuinak, pasadizoak eta istorioak ahoz aho kontatzeko ohitura zaharra galtzen ari da.

Ohitura hori berreskuratzean datza gure lana, eta baita gustuko ditugun hainbat ipuin bizirik mantentzean ere; familiakoen artean, sutondoan, kontu-kontari aritzen zirenean, lortzen zen giroa bizirik egotea. Alde batetik, ipuinak kontatzeko saioak eskaintzen ditugu zeinetan hitza eta pertsonen arteko komunikazioa oinarriztat hartzen den. Bestetik, formazio ikastaroak antolatzen ditugu jendeak ipuinak kontatzeko gaitasuna sendotzeko.



Santander (1994)

1. Ipuinak kontatzeko saioak

- Funtsean ipuinak kontatzea hitzen bidez komunikatzea baino ez da guretzat. Gure gustuko ipuinak naturaltasunez kontatzen ditugu. Antzerkirik gabe, keinu beharturik gabe, ikuskizun handirik gabe gure benetako izaerarekin konektatzen dugu. Beraz, ipuin-kontakteta antolatzen dugunean, espektakulu hutsetik urruntzen gara, entzuleengandik jarduera hurbila sortzeko. Era berean, jarduera xumea izaten da, oinarrizko beharrekinean konektatzeko aukera ematen duelako, eta entzuten duenarentzat, nola ez, erakargarria eta iradokitzailea delako.
- Ipuin-kontaktetan mugatuta dago jende kopurua. Helburua da pertsonak hurbil sentitzea eta intimitatea lortzea. Ezaugarri hori ezinbesteko baldintza bihurtzen da benetako komunikazio zuzena lortzeko.



Larrabetsu (Bizkaia) (2011)

- Gure saioak era eta adin guztietako pertsonentzat molda ditzakegu:
 - alde batetik, umeentzako saioak egiten ditugu; arrakastatsuak izaten dira beti.
 - bestetik, helduentzako saio bereziak antolatzen ditugu, eta daukagun esperientzia oso ona da.
 - ezin dugu ahaztu, adin ezberdineko pertsonekin osatutako talde heterogeneoak ere antolatu ditugula ipuin-kontaktak egiteko. Kasu hauetan oso giro atsegina eta goxoa sortzen da.
- Esperientzia ugari daukagu eta proposatzen dizkiguten interesetara eta beharretara moldatzen gara. Ipuinak entzuteko prest dagoen pertsona talde bat dagoen edozein lekutan egin dugu lan: liburutegietan, kultura-etxeetan, ospitaletan, liburu-dendetan, liburu-azoketan, hirugarren adineko etxeetan, eskoletan, tabernetan, bigarren hezkuntzako institutuetan, zentro komertzialetan, Gure eskaintza oso zabala da.
- Entitate, elkarte edota talde batek ipuinak kontatzeko saioei segida eman nahi izanez gero, “Ipuin ordua” antolatzen dugu. Kasu horretan astero, hilero edo hiru hilabetean behin leku jakin batean ipuinak kontatzeko saioak antolatzen ditugu.
Esperientzia oso ona da. Jarduera horretara hurbiltzen den jendeak ipuinenganako interesa areagotu egiten du, era horretan literatura eta liburuenganako hurbilketa egokitu eta irakurtzeko ohitura errazago piztu.
- Saioen iraupena ordu batekoa izaten da, baina horretan ere eskaerretara moldatzen gara.
- Saioak euskaraz nahiz gaztelaniaz egiten ditugu.

2. Gure ipuin-bilduma

- Gure saioetan herri-ipuinak erabiltzen ditugu, mundu zabaleko ahozko tradizioetik datozenak. Kontatzeko egitura egokia daukate, eta ipuin mireagarriak edo maitagarrien ipuinak ere esaten zaie. Adituak ipuin horiek aztertzean harrিতa geratzen dira haien aberastasunaz eta konplexutasunaz; izan ere, gaur egun, hezkuntzan, psikologian, literaturan eta beste hainbat arlotan ere, artelantzat hartuak dira.
- Era askotako herri-ipuinak daude aukeratzeko, denak aberagarriak eta paregabeak eta berezko nortasuna dutenak. Ipuin horiek problemarik gabe koka daitezke edozein proiektutan, jardunalditan, ospakizunetan edota antolakuntzatan. Gizakiaren oinarrizko gaiak ipuinetan agertzen dira -beldurra, heldutasuna, ongia, gaizkia, natura, familien arteko komunikazio-beharrizanak, familietako partaideen arteko arazoak, heriotza, jakinduria, errua, errugabetasuna besteak beste-. Beraz, integrazioa, koedukazioa, sexualitatea, ekologia eta ingurugiroa (animalien eta naturaren zainketa), osasuna, familia eta beste hainbat gai tratatzen dituzten jardunaldi edota proiektuetara gonbidatzen gaituzte, haietan parte hartzen dugu, eta ipuin-zerrenda zabala dugu halako helburuak lortzeko.

Herri-ipuinak unibertsalak dira; mendeetan zehar, hainbat herritan eta kulturatan ipuin berberak iraun dute bizirik. Gure lanean aukera izan dugu mundu zabaleko ipuinak aurkitzeko, ezagutzeko, biltzeko eta kontatzeko, eta baita mundu zabaleko herriak eta kulturak sakonago ezagutzeko ere. Izan ere, herrien arteko laguntzaren, ulermenaren eta errespetuaren aldeko jardunaldietan ere parte hartu izan dugu, eta balore horiek lantzeko balio duten ipuinen zerrenda luze bat ere badaukagu.



“The man in the moon” taberna. Gasteiz (Araba) (2012)

- Herri-ipuinez gain, zerrenda osatzeko zenbait idazlek idatzitako ipuin laburrak ere aukeratuak ditugu. Era berean, tarteka-marteka, asmakizunak, legendak, mitoak, pasadizoak eta mota guztietako istorioak ere sartzen ditugu.
- Gainera, euskal kultura sakonki ezagutzen dugu, batez ere mitologiarekin, legendekin, ohiturekin, herriko ipuinekin eta, oro har, ahozko literaturarekin zerikusia duten gaiak. Eta nola ez, euskara ere ezagutzen dugu, gure herrian ahozko literatura horri forma ematen dion hizkuntza zahar eta aberatsa, alegia.



Fresneda (Burgos) (2012)

Ipuin horiek bizirik mantentzea da Baleuberen helburua. Aurrerantzean ere ipuinak biltzen, aukeratu eta antolatzen jarraituko dugu kontatu ahal izateko gero ere,. Eta, nola ez, ahaleginak egingo ditugu beste pertsonengan kontatzeko grina pizteko.

Gure lanak zentzua hartzen du soilik baldin eta ipuinen bitartez elkarri kontu-kontari aritzeko aukera zabaltzen bada; bestela esanda, pertsonen artean hitzezko komunikazioa lortzen bada.